

C. Ulises Moulines

Manifestu nazionalista

(are separatista ere esango
nioke, estutuz gero)

Iñaki Sotoren edizioa



Jatorrizko izenburua: *Manifiesto nacionalista*
(o hasta separatista, si me apuran)

Itzulpena: Xalbador Garmendia, Joana Garmendia
eta Ixiar Badiola

Azala eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio

Argitaratzea:

Editorial Txalaparta E.M.
Navaz y Vides 1-2
78. Posta-kutxa
31300 Tafalla
NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Faxa 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

Lehenengo edizioa

Tafalla, 2008ko martxoa

Copyright

© Txalapartak
© C. Ulises Moulinesek
© Xalbador Garmendiak

Maketazioa

Monti

Inprimaketa

RGM

ISBN

978-84-8136-512-2

Lege gordailua

BI-1.005-08

HITZAURREA

«Printzipio nazionalistak izpiritu etiko “unibertsalista” izan dezake oinarri. Nazionalista abstraktuak egon badira; berezko euren nazionalitatearen eraginik jaso gabe, nazio guztientzat euren doktrina eskuzabalki predikatzen dutenak: utz dezagun nazio guztiek euren babes politikoa eduki dezatela eta begiratu daitezela haren pean ez-nazionalak izatetik. Nazionalismo ez berekoi horren alde egiteak ez dakar inolako kontraesan formalik. Doktrina moduan zenbait argudio sendoren babesa du, hala nola kulturen aniztasuna gordetzearen onura, nazioarteko sistema politiko pluralista eta estatuen barneko tentsioen murrizketa».

E. GELLNER, *Nations and Nationalism*

MANIFESTUAREN JATORRIA ETA IBILBIDEA

Manifestu nazionalista (are separatista ere esan-go nioke, estutuz gero) 2001eko udaberrian argitaratu zen lehenengo aldiz. Bateratsu argitaratzen da Mexikoko eta Espainiako filosofiako bi aldizkari ospetsutan (*Diánoian*, ozeanoaz haraindian eta *Isegorian*, metropoli penintsularrean). Artikuluak, batetik, sorpresa eta, beste-

tik, iskanbila eragiten ditu: mundu akademiko hispanoan inork gutxik espero zezakeen nazionalismoaren horrelako defentsa sutsua, are gutxiago defentsa hori mundu horretan begi onez ikusia den Ulises Moulines zientzia filosofoaren eskutik etortzea. Moulinesek «nazionalismoa, nazioen babes eta garapenerako programa», bai maila kontzeptualean, bai maila moralean «oinarri sendoko doktrina» dela defendatzen du. Zientziaren filosofiako metodologiak eta argudioak baliatuz, nazioen eta etnien izaerari buruz gogoeta egiten du eta, horrekin batera, nazionalismoaren aldeko argumentu moralak aztertzen ditu.

Mexikotik etorritako erantzunek joera kritikoa dute, baina eztabaida akademikoaren maila mantentzen dute. Beren artikuluetan, Ambrosio Velascok eta Luis Villorok *Manifestu nazionalistan* (aurrerantzean MN) azaldutako kontzeptu gatazkatsuak analizatzen dituzte: etnia eta nazioaren arteko harremanak; etnia, herria, nazioa eta estatua terminoen erabilerak... Adibidez, Moulines eta Villororen artean «herria» terminoari buruz eztabaida interesgarria ematen da. Carlos Peredaren artikuluan, ordea,

nazionalismoari buruzko topiko guztiak bil-tzen dira: batetik, zitatzen diren liburuak ego-kiak dira, baina idazlan horien irakurketa alder-dikoia egiten da; bestetik, J. Juaristi edo F. Savater eredutzat hartuta, euskal abertzaletasu-naren kasu «argigarria» aipatzen da, kolonizatu-tako hispanoaren leialtasunei jarraituz betiere. Moulinesek artikulua horiei emandako erantzuna «¿Quién teme a la Nación? Respuestas a Pe-reda, Velasco y Villoro» da.

Espainiar ohorearen defentsa Aurelio Ar-tetaren esku geratu zen. Irakasle nafarra euska-raren garapenaren kontra emandako iritzien-gatik da ezaguna gure artean. Artikulu batekin nahikoa ez, eta bi idatzi zituen Artetak: «Un nacionalista en apuros (El inconsistente nacio-nalismo de U. Moulines)» eta «Descaro del na-cionalismo académico (o las muchas malicias de U. Moulines)». Kasu horretan, artikuluen maila guztiz ideologikoa eta anti-akademikoa da. Nazionalismoaz baino gehiago terrorismoaz hitz egiten du Artetak eta, izenburuek iradoki-tzen dutenez, Moulinesen aurka akusazio gogo-rrak egiten dira bertan. Artetak ez du ulertzen nazionalismoa aztergai filosofikoa den fenome-

no gisa, konbatitu behar den fenomeno politiko gisa baizik. Zehatzago, Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko gatazkara mugatzen du fenomeno hori.

Moulinesek Artetaren lehenengo izkribuari emandako erantzuna «Crispaciones Hispánicas (Reflexiones en torno a la terapia antinacionalista de A. Arteta)» da, eta horren amaieran, Artetaren eskariari erantzunez, espainiar estatuari buruz hainbat gogoeta biltzen dituen «Notas desde la lejanía sobre el País de los Conejos» epilogo idazten du. Gure herrian ematen den egoerarekin harremana baduenez, liburu honetan epilogo moduan «Untxien erresuma» artikulua zatia sartzea erabaki dugu.

Honezkero polemikaren garra txikiagotu bide da. Hala eta guztiz ere, polemikaz haratago, nazioari eta nazionalismoari buruzko gogoeta filosofiko-akademikoak berebiziko garrantzia du. Nazioarteko ikerketa taldeak, publikazioak eta kongresuak ugaltzea da honen guztionen adibiderik adierazgarriena. Interes hori, ordea, ez da ariketa intelektual hutsa, izan ere, MNren oinarrian zeuden kezkak

eta galderak gure eguneroko bizipenetan txertatuak daude. Zer da nazioa? Zer harreman dago etnien eta nazioen artean? Zergatik gara nazionalista ? Zergatik jarraitu behar dugu izaten?

Aipatu bezala, liburuxka honetara MN eta «Untxien erresuma» epilogoak ekarri ditugu. Polemikaren arrasto osoa jarraitu nahi duenak hitzaurre honen amaieran aurkituko dituzte erreferentziak.

NOR DA, BAINA, ULISES MOULINES?

Irakurleak liburua zabaldu eta berehala igarriko du Moulines konplexurik gabeko nazionalista bat dela. Horren bizitza ezagututa ordea, ez da erraza zein naziotako kide sentitzen den esatea. Bi pasaporte ditu (venezuelarra eta espainiarra), eta bost hizkuntza menderatzen ditu. Gaztaroa Katalunian igaro zuen. Amerikako eta Europako unibertsitate askotan eman ditu klaseak, eta gaur egun Municheko unibertsitateko irakaslea da. Biografia hori ikusita kosmopolita eredugarri baten aurrean gaudela

pentsa dezakegun arren, *Manifestuan* dioenez, kosmopoliten existentzia ukatu egiten du. Moulines, gehienez ere, Gellnerrek deskribatzen duen nazionalista motakoa da.

Identitate-nahastea aurreko belaunalditik datorkio Moulinesi. Gerra zibilean gurasoek POUEN militatu zuten eta brigada internazionalistekin batera Bartzelonan borrokatu ziren. Paradoxikoki, Bartzelonako ziega stalinistetan egon ziren preso, txeketan. Ondoren, Franco gailendu eta gero, Frantziara ihes egi-tea lortu zuten. Berriro bertan atxilotu eta Frantziako kontzentrazio zelai batetik Alemaniako zelai nazi batera igorri zituzten. Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan, Espainiara bidaliak izateko arriskua mirakuluz ekidin eta gero, erbesterako bidea hartu zuten. Venezuelan aurkitu zuten aterpea, Moulines txikia bidean zela (ikus Moulinesen amak idatzitako memoriak: Castellví, O: *De les Txeques de Barcelona a l'Alemanya nazi*, Bartzelona, Quaderns Crema, 2003. Laster gaztelaniazko bertsioa argitaratuko da).

Ulises Moulines Caracasen jaio zen, 1946an. Handik laster amarekin Bartzelonara itzuli eta

bertan Filosofiako ikasketak burutu zituen. Zientziak eta bereziki zientzia-teoriek haren interesa piztu zuten eta, filosofia analitikoa deritzan joerari jarraituz, teoriaren azterketari ekin zion. Münchenen jaso zuen doktore gradua, teoria termodinamikoei buruzko tesi batekin. Orduetik hona Mexikoko, Kaliforniako eta Alemaniako unibertsitateetan eskola eman du eta burutu dituen lanek nazioarteko filosofia komunitatean oihartzun handia izan dute. Puntako aldizkari zientifiko ospetsuenetan argitaratu du eta horien komite zientifiko askotan dago.

Goian aipatu den bezala, Moulinesek nagusiki zientziaren filosofian dihardu. Zientziaren filosofian programa estrukturalistaren sortzaileetako bat da (W. Balzerrekin eta J. D. Sneedekin batera). Eskola hori teoria zientifikoaren egituraz arduratzen da, sare teorikoak eta horien hainbat atal ikuspuntu metazientifikoetik analizatzen ditu (ikus Ibarra et. al.: *Zer da zientziaren teoria delako hori?*, Bilbo, EHUko Argitalpen Zerbitzua, 1992, bereziki «Sarrera» eta «4.2.» atala). Moulines erlatibismoaren kritikoa zorrotza da, eta bere lanetan pluralis-

moa aldarrikatuko du. MN izan da filosofia politikoan egin duen lehenbiziko lana.

MANIFESTUAREN EKARPEN NAGUSIAK

Ulises Moulines filosofia politikoan aditua ez dela azpimarratu behar da. Horrexegatik eta berak onartzen duenez, azken hamarkadetan alor horretan nazioari eta nazionalismoari buruz garatu den literatura ez du menderatzen. Duen formazioagatik teoriok arrotz baldin bazez ere, Moulinesek W. Connor eta A. D. Smith irakasleen arrastoari darraio eta bere ekarpena joera horietan txertatzen da (ikus bibliografia). Lehenbizikotik argitasun kontzeptualaren eta metodologikoaren aldeko jarrera hartzen du, bigarrenetik, berriz, etniaren eta nazioaren arteko harremanak duen garrantzia. Tradizio horietan sortzen diren kezkek jasotzen dira Moulinesen testuetan, eta kezkoien ematen diren erantzuna tradizio horiekiko koherentea eta orijinala da aldi berean. Ekarpene horien eta nazioari eta nazionalismoari buruzko teoriaren arteko loturak argitzen saiatuko gara hemen.

Bide batez, MNk dituen hutsuneak ikuspuntu kritikotik aztertuko dira.

Moulinesen testuaren lehenbiziko bertutea formala da. MN testu zientifikoa dela aipatu behar da, ez dela idazki ideologikoa edo politikoa, alegia. Manifestu-formatua aitzakiatzat hartuz, idazlanak etengabeko erreferentzia bibliografikoekin baino gehiago arazoan azterketa zehatzarekin asetzen gaitu. Analitikotasun handiko testua da; irakurterraza bezain filosofikoki zorrotza da. Argitasun horren adierazgarri dira kontzeptuak argitzeko erakusten duen gogoia eta kementa.

Testuaren hasieran nazionalismoaren aurkarien artean dauden bi jarrera bereizten ditu. Batetik, jarrera negazionista azaltzen du (nazioak badirela, existitzen direla ukatzen dutenen posizioa) eta, bestetik, jarrera antinazionalista argitzen saiatzen da (nazioen existentzia onartu arren, entitate horien balorazio guztiz negatiboa egiten dutenen posizioa). Moulinesek azpimarratzen duenez, sarri bi jarrera horiek nahastu egiten dira, eta bat-bera bailiren aurkezten edo azaltzen dira. Haren ustez, bien arteko aldeak nabarmenak dira eta bakoitzari

erantzun desberdina eman behar dio nazionalista denak. Edota, besterik gabe, nazioen auzia ikertu nahi duenak.

Bide beretik, Moulinesek nazio eta estatu entitateen artean eman ohi den identifikazioa kritikatzan du. W. Connorrek aspaldi salatu zuenez, hori da nazioari eta nazionalismoari buruzko azterketa askoren jatorrizko akatsa (Connor 1994: 92). Moulinesek nahasketa hori negazionismoaren ezaugarritzat dauka, eta Kelsenek abian jarritako positibismo juridikolari egozten dio horren errua. Eta nahasketa horren ondorioa da, bestek beste, estatuen arteko legediaz hitz egin beharrean nazioarteko legediaz hitz egitea, gaur egun indarrean dagoen mundu mailako zuzenbide bakarra estatuen artekoa bada ere. Edota, adibidez, Estatu Batuen Erakundea den hori Nazio Batuen Erakunde izendatzea. Ikusiko dugunez, hau ez da Moulinesek Connorrekin bat egiten duen puntu bakarra. Adibidez, nazionalismoa masak manipulatzeko eliteen tresna huts dela ukatu egiten du. Connorrek, alor honetan aditu diren gehienen aurka, nazionalismoa masa fenomeno dela defendatzen du (Connor 1994: 212).

Elementu horiek guztiak kontuan hartuz, Moulinesen testua bi atal nagusitan banatzen da. Lehenbizikoan, negazionisten argudioei aurre egiten die: nazioek etniekin duten harremana aztertuz nazioen existentzia defendatzen du. Bigarren partean antinazionalistei egiten die aurre: nazioen existentziaren eta garapenaren beharra azpimarratuz nazionalismoaren balioa aldarrikatzen du.

Esan bezala, Moulinesen iritziz, nazioa eta nazionalismoa aztertu nahi dituenak etnia kontzeptuan jarri behar du begi kritikoa. Izaera politikoa, soziala eta kulturala uztartzen dituzten fenomenoak aztertzeko oinarritzko kontzeptua da etnia, etniak gizateriaren bilakaeran funtsezko entitate izan baitira. Haren ustez, fenomeno nazionala aztertzerakoan etniei begiratu behar diegu, nazioen oinarrian etniak baitaude. Ikuspuntu horrek nazioen izaera modernoa azpimarratzen duen paradigma modernista kritikatzeko duen beste Gellnerrek eta Hobsbawmek aldarrikatutako paradigma. Paradigma horren arabera, nekez froga daiteke etnien eta nazioen artean harremanik badagoenik, eta nazioak Frantziar

Iraultzaren ondotik sortutako fenomeno politiko modernoak dira.

Paradigma horren aitzindaria den Gellnerren jarrera «“nazionalismoaren printzipioa”n zehazten da: unitate nazionalen eta unitate politikoen artean kongruentzia egon behar duela aldarrikatzen duen printzipio politikoa da nazionalismoa. Beste era batean esateko, mundua bere-berez naziotan banatuta dagoela aldarrikatzen du nazionalismoak, eta nazio bakoitzari estatu bat dagokiola gaineratzen du. Printzipio horrekin, Gellnerrek nazionalismoaren esentzialismoa kritikatu nahi du, eta, bidenabar, fenomeno historiko eta kontingenteari betiereko izaera eman nahi dion ideologia nazionalista salatzen du.

Ikuspuntu horri Moulinesek «etnien printzipioa» izenda daitekeen tresna kontzeptuala kontrajartzen dio. Nazioen fenomenoak, gizateariaren historia eta mundua bera ere hobeto ulertzeko, mundua etnietan banatuta balego bezala pentsatu behar dugu. ‘Etnien printzipioa’ mundua zer-nolakoa den argitu nahi duen printzipio ontologikoa baino gehiago printzipio onto-epistemikoa da, mundua nola

uler dezakegun hobeto aztertu nahi duena, alegia. Ondorioz, printzipio esentzialista baino gehiago printzipio instrumentala da. Mundua nolakoa den esatearekin batera mundua hobeto ulertzeko ditugun instrumentuak aztertu nahi ditu Moulinesek. Horrek ez du esan nahi Moulines Gellnerrek deitoratzen duen «nazionalismoaren printzipioa»ren aurka dagoenik. Estutuz gero, printzipio horren defendatzaile izan daiteke.

Norabide horretan, nazioa eta etnia kontzeptu teoriko gisa ulertzeko proposamena egiten du Moulinesek. Kontzeptu teorikoak zuzenean behagarriak ez diren entitateak dira. Kontzeptuok zientzian erabiltzen dira, eta zientziaren filosofiak sakon aztertu ditu. Kontzeptu teorikoak dira, adibidez, zelai elektromagnetikoak fisikan, genoma biologian eta merkatua ekonomian. Proposamen hau guztiz da berritzailea, eta orain arte nazioari eta nazionalismoari buruz egin diren teoriak eta paradigmatik osatzera dator.

Zein zentzutan aberasten ditu, ordea, Moulinesen proposamenak nazionalismoari buruzko teoriak? Gaietik aztertu dugun modernis-

moaz aparte, beste bi paradigma nagusi daude nazioari eta nazionalismoari buruzko ikasketetan: primordialismoa eta etnosinbolismoa. Lehenengoa diskurtso nazionalista prototipikoaren ildoan kokatzen da (zehatzago esanda, antinazionalistek diskurtso nazionalista prototipikotzat duten horretan). Primordialisten ustez, nazioak betidanik existitzen dira. Garai bakoitzean eman zaien izenaz haratago (tribu, etnia, nazio) entitate horiek gizakiarekin batera jaiotzen dira, komunitate politiko funtsezko gisa. Geertz eta Van der Berghe dira joera horren defendatzaileetatik batzuk. Etnosinbolisten iritziz, ordea, modernistek arrazoi dute gaur ezagutzen ditugun nazioak fenomeno modernoak direla esaten dutenean. Nazio moderno horien oinarrian etniak daudela aldarrikatzen dute, ordea, eta nazioak haiekiko duten harremana aztertu gabe errealitate horretaz nekez jabetuko garela gaineratzen dute. A. D. Smith da joera horren sortzaile eta bultzatzailearik ezagunena. Moulinesen ekarpena izan da bi kontzepzio horien puntu ahulak indartzea: batetik, primordialismoari atxikitzen zaion esentzialismoa baztertzen du kontzeptualiza-

zio instrumentalaren bitartez, eta, bestetik, etniak eta nazioak kontzeptu teoriko moduan identifikatuz eta bi entitate horien arteko harremani buruz (etorkizunean) azterbide egokia irekiz, etnosinbolistei aurpegiratzen zaien pobrezia kontzeptuala gainditzen du.

Hala eta guztiz ere, ikuspuntu nazionalista batetik, nazioa kontzeptu teoriko moduan ulertzeko proposamena nolabait arriskutsua badela esan behar da. Zientziaren historian zenbait kontzeptu teorikok erreferentziarik ez zutela edo kontzeptu teoriko horiek hutsak zirela baieztatu da. Gertaera horren adibide paradigmaticoa flogistoa da. George Stahlek flogistoa (suaren printzipioa) substantzia erregai ororen osagarritzat postulatu zuen. Printzipio horren arabera, flogistoa erregai diren substantzia guztien elementua da eta funtsezko papera jokatzen du erretze prozesuan. Gerora, Lavoisierrek flogistoa kontzeptu hutsa zela frogatu zuen eta, ondorioz, erregaiei buruzko teorian flogisto kontzeptua sobera zegoela edo kontzeptu teoriko hutsa zela demostratu zen. Beraz, nazioak kontzeptu teoriko gisa onartzeko prest dagoenak, teoria mailan na-

zioek flogistoarena baino gehiago elektroien antza dutela frogatu beharko du, nolabait esateko. Aurretik aipatu dugun negazionistaren erronka kontrakoa da, izan ere, nazioa flogisto bezain faltsua dela uste baitu.

Moulinesen ustean, nazioak etnia mota bereziak dira. Nazioak «identitatea gordetzeko eta garatzeko programa politikoa duten etniak dira». Puntu horretan, Moulinesek bat egiten du paradigma etnosinbolistari egiten zaion kritika nagusiarekin: *Manifestuak* nazioen izaera funtsean politikoa azpimarratzen du, izaera politiko hori nazioak etnietatik desberdintzen dituen ezaugarri nagusi gisa onartuz. Jarrera hori, esplizituki ez bada ere, nazio kulturalen eta nazio politikoen arteko dikotomia ukatzera dator; nazio guztiak, definizioz, entitate funtsean politikoak dira, eta funtsean kulturalak direnak etniak dira. Ezaugarri hori da, gainera, bien arteko desberdintasun nagusietako bat.

Testuaren bigarren zatia nazionalismoaren etikaren ikuspuntutik dago idatzia. Aurretik aipatu dugun bezala, Moulines, atal horretan, antinazionalistari zuzentzen zaio. Antinazio-

nalistak, negazionistak ez bezala, nazioak izan badirela onartzen du. Gizadiaren historian izan duten egitekoa eta bete duten papera negargarria eta okerra dela salatzen du, ordea. Nolabait esateko, mundua naziotan banatua balego ere, hobe litzateke horrela ez izatea. Behin nazioak existitzen direla onartu eta horiek azaltzeko tresneria kontzeptuala eraiki ondoren, zergatik izan behar dugun nazionalista edo zergatik jarraitu behar dugun nazionalista izaten argitzen saiatuko da Moulines.

Helburu horrekin, Moulinesek nazionalismoaren aldeko argudio nagusia pluralismoaren berezko balioaren printzipioa dela argudiatzen du. Printzipio horrek tesi normatibo bat biltzen du, zeinaren arabera, munduan ahalik eta gauza gehien eta ahalik eta mota desberdinetako gauzak egotea berez ona den eta, ondorioz, pluraltasun hori babestu eta indartu egin behar den. Etniak eta nazioak, inori kalterik egiten ez dioten neurrian, babestu eta indartu behar diren gauza-klase horietako batzuk dira.

Printzipio horrek sortzen duen lehenbiziko kezka honako hau da: pluralismoaren be-

rezko balioaren printzipioari jarraituz, gaixotasun klase gehiago eta arraroagoak existitzea ona al da? Minbizi mota gehiagorekin mundua pluralagoa litzateke, ezta? Hortaz, mundua gauza gehiagoz eta desberdinagoz osatua egonagatik, besterik gabe mundu hobea dela esan ote daiteke? Erantzuna berehalakoa da: besteari bizitzen eta garatzen uzten dion edozein entitate da pluralismoaren bermatzaile. Ondorioz, minbizia edo zernahi deusezta ditzakeen edozein gaitzek pluralismoaren berzko balioaren aurka egiten du eta ez alde. Hipotesi horretan, minbizia pluralismoaren berme baino gehiago pluralismoaren ezabatzaile da. Printzipioari berari kontra egiten dion heinean, minbizi mota gehiago egotea ez da inola ere onuragarria. Ikuspuntu horretatik, Moulinesen printzipioa ekologiaren printzipioaren parekoa dela esan daiteke.

Printzipio axiologiko (balioei dagokien printzipio) horren beste arazoa erredukzionismoa da. Nire ustez, nazionalismoaren funts morala printzipio bakar batera murriztu nahi izatea huts egitea da. Judith Lichtenbergekek «Nationalism: For and (Mainly) Against» arti-

kuluan moralki pertinenteak diren nazionalismoaren aldeko bost argudio erabiltzen ditu:

- 1) Loratzearen argumentua: gizakiek, beren familiaz harago, talde baten kide izan behar dutela edo komunitate zabalago batekin identifikatu behar dutela uste izatean datza. Hori da, izan ere, gizakiek loratzeko bide natural eta bakarra.
- 2) Autodeterminazioaren argumentua: gizakiek autogobernurako elkarrekin sortzeko duten eskubide morala azpimarratzen da hemen, libreki hautatutako kideez osatutako elkarrekin, betiere.
- 3) Ordaintzaren argumentua: injustizia zaharrak edo kalte historikoak konpontzeko bidea gisa azaltzen da.
- 4) Aniztasunaren argumentua: kultura anitzez eta desberdinez osatutako mundua hobesten duen ikuspegia da. Kultura batzuk beste batzuk baino hobeak direla uste izanda ere, argudio hori mundu plurala mundu homogeneoa baino desiragarriagoa dela defendatzean datza.
- 5) Berezko balioaren argumentua: kultura baten existentzia bermatu behar den

ondasuna dela defendatzen da, kultura horri berezkoa zaion balioagatik.

Ikus daitekeenez, Moulinesen pluralismoaren berezko balioaren printzipioa Lichtenbergen azkeneko bi argumentuen aurrekari bat da. Moulinesena orokorragoa da, ordea, pluralitasunaren berezko balioa kulturari ez baidzik printzipioa babesten duen entitate orori aplikatzen baitzaio, entitate kultural izan ala ez. Lichtenbergen zerrenda ere findu, osa, sistematiza daiteke. Baina gauza agerikoa da nazionalismoaren oinarri morala printzipio orohartzaile bakar batekin baino hobeto identifikatzen dela printzipio-argudio multzo batekin.

Puntu horretan Moulinesek beste bi elementu sartzen ditu: hegemonismoa, nazionalismo faltsu edo antinazionalismo gisa, eta horri kontrajartzen zaion nazionalismo internazionalista, bere ustez onuragarri delako onargarri den nazionalismo modu bakarra.

Gaur egun existitzen diren estatu gehienak multietnikoak dira. Estatu-nazio horiek, kasu gehienetan dominazioa eta konkista zirela medio osatu ziren, eta nagusi zen etnia baten

arabera antolatu ziren. Puntu horretan, Moulinesek bat egiten du A. D. Smithen etnia nagusiaren teoriarekin (*dominant ethníe* edo *core ethníe*, Smithen terminologian). Smithek honela azaltzen du prozesu hori:

«Though most latter-day nations are, in fact, polyethnic, many have been formed in the first place around a dominant ethníe, which attracted other ethnies or ethnic fragments into the state to which it gave a name and cultural charter». (Smith 1991: 139)

«Berez, azken garaiko nazio gehienak polietnikoak izan arren, hasiera batean horietako asko etnia nagusi baten inguruan osatu dira, zeinek beste etniak edo etnien zatiak bere izena eta bere kultur izatea eman zion estatu barrura erakarri zituen».

Moulinesen iritziz, eredu horrek dituen arazoak historian zehar agerian geratu dira. Estatu multinazionalak *a priori* ezinezkoak edo txarrak direnik ezin da esan. *A posteriori*, historiari begirada bat bota ondoren, alegia, eredu horren ezintasunak agerian geratzen dira. Errealitatean, etnia nagusiek alor politikoan, ekonomikoan, linguistikoan... arauak ezartzen dizkiete estatu horretako kide diren

beste etnia «ahulagoei», eta berena eta baka-
rrik berena den ohitura guztientzat lege
bihurtzen dute. Estatu eredu horiei Mouline-
sek estatu-nazio hegemoniko deitzen die eta
beraiei darien injustizia gogor salatzen du.
Nolabait esateko, ikuspuntu arau-emaile ba-
tetik, «nazionalismoaren printzipioa»rekin
bat egiten du Moulinesek, elkar errespetatu
jokatu ezin duten herriek banatzeko duten es-
kubidea aldarrikatzen baitu.

Horiek horrela, Moulines, nazionalismo
internazionalistaren defentsa egitera igarotzen
da. Nazionalismo internazionalista izendatzen
duen hori nazionalismo modu ideala da; plu-
ralismoaren berezko balioaren printzipioaren
arabera edo printzipio hori babesten duen
programa politikoa delako, hain zuzen ere. Na-
zionalismoa, bakoitzaren nazioa ez ezik, beste
nazioen existentziaren eta garapenaren onar-
pena da. Ondorioz, nazionalismo internazio-
nalista hegemonismoaren antagonikoa da.

Beste behin oraindik Marxen eta Engelsen
manifestuari erreferentzia eginez, Moulinesek
nazioen iraultzari dei eginez amaitzen du
MNA: «(Makurtutako eta iraindutako) mun-

duko nazioak: elkar zaitezte (Estatu hegemonikoen aurka)».

Amaitzeko, «Untxien erresuma» epilogoia komentatzea besterik ez da falta. Izenburu horrekin Moulinesek espainiar estatuari egiten dio erreferentzia, feniziarrek horrelaxe deitzen omen ziotelako gaur egun «Espainia» gisa ezagutzen dugun lurraldeari. Hasteko, lurralde horretan lau nazio eta estatu bakarra daudela kontuan hartuta, Espainia izendapena baztertu eta, «Untxien erresuma» onartuko ez dela aurreikusita, espainiar estatu izendatzea proposatzen du. Lau nazio horiek (Espainia, Katalunia, Euskal Herria eta Galizia) osatzen dituzten pertsonen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak nabarmenak direnez, estatu horren bizitza soziala, juridikoa eta politikoa errealitate horretara egokitzeko deia egiten du Moulinesek, espainiar konstituziotik hasi eta eskolataraino. Horrela egiten ez delako, hots, nazio nagusiak nazio gutxituen interesak eta beharrak errespetatzen ez dituelako, Espainia nazio hegemonikoa dela salatzen du Moulinesek. Hori da, eta ez beste ezer, espainiar estatuak dituen gatazken iturria. Zer egin horren aurrean?

Moulines ez da ausartzen nazio horiei aholkurik ematen, baina argi ikusten du etnia nagusian urtu edo bestela estatu propio bat eraiki, beste biderik ez zaigula geratzen. Horretarako formula argia da: autodeterminazio eskubidearen onarpena eta nazio horien populazioaren % 50+1 boto bereganatu. Printzipio hori guztiz demokratikoa da, edozein demokratak onartu beharko lukeen printzipioa. Hortik dator kio MNri azpтитulua: estutuz gero, are separatista ere.



OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

POLEMIKAREN ERREFERENTZIAK:

- ARTETA, A.: «Un nacionalista en apuros (El inconsciente separatismo de Ulises Moulines)», *Isegoria: Revista de Filosofía Moral y Política*, 2002ko ekaina; 26. zkia., 219-237 orr.
- ARTETA, A.: «Descaro del nacionalismo académico (O las muchas malicias de Ulises Moulines)», *Isegoria: Revista de Filosofía Moral y Política*, 2003ko ekaina, 28 zkia., 191-219 orr.
- MOULINES, C.U.: «Manifiesto nacionalista (O hasta separatista, si me apuran)», *Isegoria: Revista de Filosofía Moral y Política*, 2001eko ekaina; 24 zkia., 25-49 orr.
- MOULINES, C.U.: «Manifiesto nacionalista (O hasta separatista, si me apuran)», *Diánoia*, XLVI LIBURUKIA, 46 ZKIA., 2001EKO MAIATZA.
- MOULINES, C.U.: «¿Quién teme a la nación? Respuestas a Pereda, Velasco y Villoro», *Diánoia*, XLVII LIBURUKIA, 48 ZKIA., 2002KO MAIATZA.
- MOULINES, C.U.: «Crispaciones hispánicas (Reflexiones en torno a la terapia antinacionalista de Aurelio Arteta)», *Isegoria: Revista de Filosofía Moral y Política*, 2003ko ekaina, 28 zkia., 171-189 orr.
- MOULINES, C.U.: *Manifiesto nacionalista*, Bartzelona, La Campana, 2002.

- PEREDA, C.: «Tres desmesuras de los nacionalismos»,
Diánoia, XLVII LIBURUKIA, 48 ZKIA., 2002KO
 MAIATZA.
- SOTO, I.: «Nazionalista bat konplexurik gabe», *Jakin*,
 162. ZKIA., 2007KO IRAILA-URRIA.
- TXAPARTEGI, J.: «Zer gordetzen digu Artetak
 ez-nazionalista mozorroaren atzean?», *Jakin*,
 162. ZKIA., 2007KO IRAILA-URRIA.
- VELASCO GÓMEZ, A.: «Nación y nacionalismo»,
Diánoia, XLVII LIBURUKIA, 48. ZKIA., 2002KO
 MAIATZA.
- VILLORO, L.: «Notas sobre el nacionalismo de
 Moulines», *Diánoia*, XLVII LIBURUKIA, 48. ZKIA.,
 2002KO MAIATZA.

NAZIONALISMOARI BURUZKO
 OINARRIZKO ERREFERENTZIAK:

- BERLIN, I.: «La rama doblada: Sobre el origen del
 nacionalismo» in Berlin, I.: *El fuste torcido de la
 humanidad*, Bartzelona, Península, 1998.
- BILLIG, M.: *Banal Nationalism*, New Delhi, Sage
 Publications, 1995.
- BREUILLY, J.: *Nationalism and the State*, Manchester,
 Manchester UP, 1993. (gaztelaniazko itzulpena:
Nación y estado, Bartzelona, Pomares-Corredor,
 1990).

- CONNOR, W.: *Ethnonationalism: The Quest for Understanding*, Princeton, Princeton University Press, 1994.
- GEERTZ, C.: *The Interpretation of Cultures*, 2nd edn., London, Fontana, 1993. (gaztelaniazko itzulpena: *Interpretación de las culturas*, Bartzelona, Gedisa, 1988).
- GELLNER, E.: *Nations and Nationalism*, Oxford, Blackwell Publishers, 1983. (gaztelaniazko itzulpena: *Naciones y nacionalismo*, Madril, Alianza, 1988).
- HOBBSBAWM, E.: *Nations and Nationalism since 1780: Programme, Myth, Reality*, Cambridge, CUP, 1992. (gaztelaniazko itzulpena: *Naciones y nacionalismo desde 1770*, Bartzelona, Critica, 2000).
- HUTCHINSON, J.; SMITH, A.D. (arg.): *Nationalism*, Oxford, Oxford University Press, 1994.
- McKIM, R.; McMAHAN, J. (arg.): *The Morality of Nationalism*, Oxford, OUP, 1997. (gaztelaniazko itzulpena: *La moral del nacionalismo*, I eta II liburukiak, Bartzelona, Gedisa, 2003).
- MILLER, D.: *On Nationality*, Oxford, Oxford University Press, 1995. (gaztelaniazko itzulpena: *Sobre la nacionalidad*, Bartzelona, Paidós, 1997).
- OZKIRIMLI, U.: *Theories of Nationalism: A Critical Introduction*, New York, St. Martin's Press, 2000.

- SMITH, A.D.: *National Identity*, London, Penguin, 1991. (gaztelaniazko itzulpena: *La identidad nacional*, Madril, Trama, 1997).
- SMITH, A.D.: *Nationalism and Modernism: A Critical Survey of Recent Theories of Nations and Nationalism*, London, Routledge, 1998. (gaztelaniazko itzulpena: *Nacionalismo y modernismo*, Madril, Istmo, 2000).
- VAN DEN BERGHE, P.: «Race and Ethnicity: A Sociobiological Perspective», *Ethnic and Racial Studies*, 3rd. edn., 1 (4), 1998, 401-11 orr.

Manifestu nazionalista

**(are separatista ere esango nioke,
estutuz gero)**

I
HIRU TESI

MAMU BAT DABIL EUROPAKO kanzelergoetan barrena. Eta ez kanzelergoetan soilik, baita parlamentuetan, prentsan, unibertsitateetan eta, oro har, «iritzi publiko» esaten zaionean barrena ere. Eta ez Europakoetan soilik, baita mundu osokoetan ere. Ez gara Marxek eta Engelsek duela mende eta erdi beren *Manifestuan* aipatzen zuten zomorroaz ari. Orain gobernu, parlamentu, kazetari eta intelektualak izutzen dituen mamuak ezaugarri oso desberdinak ditu komunistek iragarri zuten harenetik: nazionalismoaren mamua da. Badirudi pertsona zintzo orok hari egotzi behar diola gaur egun Gizateriari horrenbeste sufriarazten dion zorigaitzen errua.

Zomorro hori hartuko dugu aintzat honako saiakera honetan. Hiru tesi aldeztu nahi

ditut horren gainean. Lehen tesiak izaera enpirikoa du (eta horrenbestez, berez ez da filosofo batentzat duin –baina batzuetan, arazoen gordintasuna dela-eta, filosofook diziplinen mugez haraindira joan beharra daukagu–): nazionalismoa fenomeno kultural sakona da, ez moda iragankorra. Bigarrenak izaera metodologikoa du, eta aldeztu nahi dudan tesi nagusia da: nazionalismoaren fenomenoak jorratzerakoan horri dagozkion diziplina sozio-kulturalek urritasun kontzeptual eta metodologiko nabaria dute. Oraindik ere kulturaren zientzietan oso zabalduta dagoen txirotasun metodologiko jakin baten adierazpenetariko bat da urritasun hori. Hirugarren eta azken tesiak izaera etikopolitikoa du (eta, beraz, ez da *zientziaren* filosofo batentzat duin –baina, lehenengo tesiko arrazoi berengatik, mugez haraindira joateko nahiko arrazoi badudala uste dut–): hau ez da, egia esan, aurreko bi tesietatik ondorioztatzen den korolario praktikoa, eta, nire ustez, agerikoa besterik; honako lema honetan bil daiteke: gora nazionalismoa!

Abia gaitezen hipotesi sozio-psikologiko batetik, nire ustez datuetan ondo oinarritua

dagoena, eta gaur egungo zein iraganeko fenomeno politiko, sozial eta kultural ugari ulertzea ahalbidetzen diguna: nazionalismoaren sustrai psikologikoa gizaki askok duen emozio sendo eta iraunkorra da; emozio horri antzinako denboretatik «aberriarenganako maitasuna» esan zaio, nahiz eta esparru intelektualetan jada ez den erabiltzen adierazpide hori. Beste edozein emozio sendo eta oinarrikoren moduan, zentzuz bideratuz gero oso kreatiboa izan daiteke; baina itxuragabetzen edo itotzen bada, oso suntsigarri gerta daiteke. Efektu berak atzeman ditzakegu, oro har, positiboki baloratzen diren beste maitasun mota batzuetan: buruestimuan (nork bere duintasunari dion maitasunaren zentzuan), bikotearenganako maitasunean, seme-alabenganako maitasunean, eta baita gauza abstraktuagoei diegun maitasunean ere (askatasuna edo ezagutza kasu).

Beren buruei «razionalista» deritzaten filosofo batzuek emozio horiek «irrazionalak» direla esango dute. Baina filosofo «razionalista» ere, hezur-haragizko gizakia denez, haserretu egingo da gehiegi makurrarazten badu-

te, goibeldu egingo da bikoteak uzten badu edo seme edo alaba bat hiltzen bazaio, kartzelan sar dezaten ekiditen ahaleginduko da, eta izutu egingo du alzheimer gaitza izan dezakeela pentsatze hutsak. Filosofo razionalista ere aipatu ditugun maitasun irrazionaleri lotua dago. Bidentenabar, azpitesi bat postulatuko dut hemen, azal-azaletik, hori justifikatzeko lekuri ez dudan arren: «razional» eta «irrazional» adjektiboek ez dute batere balio gizakien kontuak ulertzeari gagozkionean.

Edonola ere, maitasun-emozio horiek guztiek, «razional» nahiz «irrazional» izan, badute zerbait komunean: gizaki gehienentzat natural eta saihestezin dira. Beste ezaugarri bat ere partekatzen dute: gizabanakoak lotura-sentimendu estua du gainditzan duen objektu batekiko; aldi berean bere buruaz kanpoko zerbait gisa eta bere identitate propioaren oinarrizko osagai moduan hautematen duen zerbaitekiko. Aldi berean kanpoko eta intimo den «zerbait» hori entitate oso zehatzek osa dezakete, hala nola bikoteak edo familiak, ezagutza zientifikoaren gisako entitate arras abstraktuak, edo baita horren zehatzak eta horren abstraktuak

ez diren gauzek ere, adibidez norberaren duintasunak, askatasunak... edo baita aberriak ere, hain justu. Maitasun-emozio horiek asetzeko, gizabanakoak energia dosi ikaragarriak erabil ditzake, arrisku handiei aurre egin diezaieke edo bizitza bera ere sakrifika dezake.

Lotura edo auto-traszendentsia sendoko emozio sorta ematen delako, eta, orokorki, horietatik asko gizakiari berezko zaizkiola edo are oso baliotsu direla onartu ohi den arren, ezin ondoriozta daiteke emozio nazionala, aberriarenganako maitasuna, horien arteko bat denik, jakina. Antinazionalistak esan dezake, norberaren duintasun, bikote, ezagutza edo familiarenganako maitasunaren gisako bulkadak onar, edo are positiboki balora baditzakegu ere, haatik aberriarenganako maitasuna arbuia egin behar dela. Puntu horrextatik abiatuko da gure eztabaida. Antinazionalista emozio jakin baten aurkaria da; ezin du emozio horren errealitate psikologikoa ukatu, baina desordena psikiko larritzat dauka, nola edo hala ito edo gainditu behar dena. Zer arrazoi eman daitezke emozio nazionalaren aurkari deklaratzeko?

II

BI ANTITESI: NEGAZIONISMOA ETA KONTRANAZIONALISMOA

NIRE USTEZ, NAZIONALISMOAREN kritikariak bi eraso-ildo oinarritzko eta *prima facie* onargarri planteatu ditzake seriotasunez; hain zuzen, gaiari buruzko literaturan planteatu izan dira. Bi argudiatze-ildo antinazionalista horiek nahastu egin ohi dira, bereizi egin behar dira alabaina, bai kontzeptualki eta bai metodologikoki: oso premisa desberdinak dituzte, nahiz eta, azken batean, ondorio berera garamatzaten. Lehenengo argudio mota «tesi negazionista» esan diezaiokegunetik abiatzen da, eta bigarrena «jarrera kontranazionalista» deritzadanetik.¹

1. Aipatu beharrik ere ez da izango, noski, testuinguru honetan «negazionismo» deritzadanak ez duela inongo zerikusirik historiografia garaikidean jarrera *errebisionistaren* aurkakoek termino horri maiz ematen zioten erabilerarekin, Bigarren Mundu Gerraren historiari zegokionez bereziki.

Tesi negazionistak zera aldarrikatzen du: ez da existitzen benetako entitaterik «halako-edo-horrelako nazioa» terminoaren erreferentzetzat har daitekeenik, estatu burujabe batez ari ez bagara behintzat. Nazioaren kontzeptu zehatza, estatuarenetik desberdina den heinean, kontzeptu hutsa litzateke, beraz. Nazio baten izen propioak, estatu bat (edo, agian, lurralde geografiko bat) izendatzeko erabiltzen ez badugu, entitate mitiko edo fikziosko bati egingo lioke erreferentzia. Hortaz, «Kroazia» terminoak 1992. urtea arte edo «Kurdistan»ek gaur egun, Patagonia edo Alpeen pareko lurralde geografiko bat izendatzeko soilik erabiltzen ez badira behintzat, «Zeus» edo «Pegaso»k izendatzen dutena izendatuko lukete; ezertxo ere ez, alegia.

XX. mendeko pentsamendu politiko-juridikoa negazionismoak izan dituen iturburuak Hans Kelsenen positibismo juridikoa aurki ditzakegu. Haren Zuzenbidearen Teoria eragin handikoaren arabera, testuinguru horretan ez dauka zentzurik *Estatuaz* ez beste zerbaitez arduratzeak, Estatua Konstituzio bategen eta arau sistema batek ondo definitutako

unitate juridiko-administratiboa den heinean. Haren lanik oinarrizkoenean, *Zuzenbidearen Teoria Hutsa* delakoan, argi eta garbi esaten du Kelsenek Estatuak bere buruaz desberdina den zerbait –nazioaren nahia, esaterako– «errepresenta» dezakeela dioen ideia zientziaren mailan inongo oinarririk ez duen fikzioa dela.²

Doktrina kelseniarrean inspiratua, Negazionismoa oso zabaldua dago gaur egungo politika-esparruaren ohiko terminologian (eta, hortaz, baita arazoak ulertzeko duen eran ere). Adibide baterako, «Nazioarteko Zuzenbide» deritzan diziplinak leial jarraitzen die Kelsenen arrastoei, eta praktikan ez da «Estatuen arteko Zuzenbidea» besterik. Kelsenek berak ere gogor baieztatu zuen Nazioarteko Zuzenbidearen (*Völkerrecht*) zentzu bakarria Estatu arteko jokabidea arautzean datzala.³ Hortaz, administrazio-unitate diren Estatu arteko harreman juridikoez arduratzeak soilik dauka zentzua,

2. Cf. H. Kelsen, *Reine Rechtslehre*, Viena, Franz Deuticke, 1960, 302 or.

3. Cf. H. Kelsen, op. cit., 337 or.

eta ez nazioen arteko harreman juridikoez, horiek Estatuez desberdin diren entitatetzat baldin badauzkagu.

Planeta mailako instantzia politiko gorenak ere, berez planetako arazo politiko-juridikoak konpontzeko ardura duenak, sorburu kelsendarreko izena dauka: «Nazio Batuen Erakunde» esaten dio bere buruari, nahiz eta benetan «Estatu Batuen Erakunde» esan beharko geniokeen, gaitz-ulertuak eta itxaropen faltsuak saihesteko.

(Lehenengo exkursoa: Ageriko arrazoiak direla medio, gaur egun ezin esan daiteke delako erakunde hori «Estatu Batuena» denik, oraindaino bere buruari izen propiorik eman ez dion Lurreko herrialde bakarra izendatzeko erabili ohi baita izen hori. Egia-tan, «Estatu Batuak» ez da adiera bakarreko izena, egitura federaldun Estatu asko baitago munduan; «Ameriketako Estatu Batuak» ere ez da izen propioa, hogeita hamarren bat Estatu burujabe biltzen dituen kontinentearen izena baita «Amerika»; gainera, gaizki izendaturiko «Ameriketako Estatu Batuez» gain, «Estatu Batu» izena duten beste bi Estatu badira gutxienez amerikal kontinentean, alegia: «Mexikoko Estatu Batuak» eta «Brasilgo Estatu Batuak». Horrela, bada, «Estatu Batuak», «Ameriketako Estatu Ba-

tuak» eta, bistan denez, «Amerika» ez dira izen zuzenak herrialde bakar batentzat. Herrialde horretako biztanleek gaurdaino uko egin diotenez beren buruei eta beren Estatuari izen propio bat emateari, bada nahiko arrazoi gainerakoak izan gaitezen horiek bataiatuko ditugunak, erreferentzia nahasgarria izango ez den izen benetako batekin. Latino-amerikar herrialdeetan dagoeneko nahiko zabaldua dagoen izen bat proposatzen dut: «gringoak» herrialde horretako biztanleentzat eta «Gringolandia» berorien Estatuarentzat. Bi izenak adiera bakarrekoak eta erabat nahastezinak dira. Exkursoaren amaiera).

Are harrigarriagoa da politologo askok eta askok estatua eta nazioa nahastea, aditu ez direnek baino zehaztasun kontzeptual gehixea izango zutela espero baitzitekeen. Esate baterako, *Oxford Concise Dictionary of Politics* itzal handikoaz ezagutzen dudana argitalpenik berrienean (1996koan) ez dago «nazio» terminoarentzat inongo sarrerarik; bai, ordea, «estatu-nazio» (*nation-state*) terminoarentzat. Agi danean, kontsulta politologikorako lan horren argitaratzaileen iritziz ezin eztabaidatuzkoa da «nazio» terminoa zentzuz estatua-ren markoan soilik erabil daitekeela. «Estatu-

nazio»ari buruzko artikululu luzean, Paul Ingramek izenpetzen duenean, autorearen iritziz nazio kontzeptua zerk bereizten duen deskribatzen zaigu laburki: «eraikuntza mitikoa... indar politiko oso pertsuasibo eta bote-retsua». Aurrerago zera ere gehitzen dio: «Bi kontzeptuak, «nazioa» eta «Estatua», batzen direnean, puntako agintariekiko zilegitasun eta eraginkortasunaren nahasketa arras konpulsiboa sortzen du horrek».

Hona hemen «negazionismoaren kontzepzio klasiko» esan geniezaiokeena: printzipioz, zientzia politikoetan ez dauka zentzurik nazioez (Estatuez aparte) hitz egiteak, gauza horiek ez baitira existitzen; dena dela, ezin ukatuzkoa da sarritan jendea abentura arras arriskutsuetan murgiltzen dela nazio baten izenean, eta ez Estatu batenean. Beraz, indar izugarria duen *mitoa* da. Eta zergatik dauka halako indarra mitoak? Ez, alajaina, errealitatean oinarritzen delako, beren boterea zilegiztatu nahi duten puntako agintariek masa sinisberak manipulatzeko dituztelako baizik.

Dena dela, kontuan har Ingramen testua 1996an argitaratu zela. Alegia, Berlingo harre-

sia erori eta zazpi urte geroago, Sobietar Bata-suna banandu eta bost urte geroago, eta Jugos-lavia zenaren zatiketarekin amaitu zen guda bortitza Balkanetan hasi eta lau urte geroago. Gertakari horietatik lehenengoa deskribatze-rakoan zera esan ohi da, eta badirudi onarga-rrri dela hori esatea: Berlingo harresia erortze-an nazio alemaniar bakarraren bi Estatu alemaniarrak batzeko bidea ireki zen. Ekialde-ko Alemaniako masek 1989ko udazkeneko manifestazio izugarrietan oihukatzen zuten le-ma izan zen batze-prozesua lotu zuen haria: «*Wir sind ein Volk*» («Nazio *bakarra* gara»). Lema hori, bide batez, ez zuten Ekialdeko Ale-maniako estatuko «puntako agintariak» as-matu; are gehiago, horiei ez zien grazia izpirik egiten esaldi horrek. Aipatu dugun bigarren gertakari politikoa honela deskribatu ohi da: Estatu propiorik ez zuten dozena bat nazioren independentzia-grinak sobietar estatu batera-tua (singularrean) zatitu zuen, *nomenklatura* (hots, puntako agintariak) aurka izan arren. Azkenik, sinesgarri dirudi hirugarren kasua, Jugoslavia zenarena, modu honetan deskriba-tzeak: Estatu burujabe propioak sortu nahi zi-

tuzten nazio batzuen borroka, puntako agintarien nagusitasun nahiaren aurka; agintari horiek beste nazio batekoak ziren, serbiarrak alegia. Eman ditugun hiru deskribapen horiek nahiko sinesgarriak dira enpirikoki eta, jakina, aurreiritzirik gabeko edonork uler ditzake; baina ulertezin lirateke baldin aipatu dugun artikuluauren autorearen pareko negazionistaren batek arrazoi balu. Zentzurik gabeko deskribapenak lirateke edo, onenean ere, maitagarrien ipuin baten antzeko zerbait. Berriki gertatutako hiru adibide historiko horiek negazionistak bere eskema teoriko orokorrarekin bateragarri egin ahal izateko ordaindu behar duen prezio metodologikoa neurrigabeki handia da, nire ustez.

Hala eta guztiz ere, azter ditzagun berriz negazionismoaren ondorio orokorrak. Haren arabera, emozio nazionala, aberriaganako maitasuna, liluraren baten emaitza da, edo are haluzinazio batena; talde-erokeria kasu bat litzateke. Alderatzekoa litzateke, esaterako, espainiar konkistatzaileek El Doradorenganako sentitzen zuten emozio sendoarekin, burubero batzuek asmatu duten eta benetan existi-

tzen ez den zerbaitekiko erakarpen eutsi ezi-
nezko eta arriskutsuarekin. Egoera horren on-
dorio praktiko morala litzateke haluzinazio
nazionalista grotesko horrek jota daudenak
sendatzen saiatu behar izatea eskura ditugun
bitarteko guztiak erabiliz: pedagogikoak, psi-
koterapeutikoak, edo, behar izanez gero, her-
tsadura administratiboa (zentsura, isunak,
etab.), edo are fisikoa (kartzela)...

Jarrera negazionistaren edukia, beraz, fakti-
koa eta, aldi berean, arau-emailea da: jarrera
arau-emaile jakin bat bultzatzen du, balizko gertaera negatibo baten deskribapenean oinarritzen dena, nazioen benetako inexistenziarenean, alegia. Ostera, aztertuko dugun nazionalismoaren aurkako beste jarrera, «kontranazionalismo» deritzadana, modu ebaluatibo edo arau-emaile hutsean ematen da aditzera. Kontranazionalismoak ez du ukatzen nazioak (Estatuez desberdinak diren heinean) benetan existitzen direnik, ezta gertaera historiko asko eta asko ulertzeko garrantzirik dutenik ere; baina zorigaitzoko errealitatetzat jotzen ditu, tamalez erabat errealak diren entitatetzat, mikroorganismo infektioso bat bezain errealak. Horrelakoak dire-

nez, nazioak erauzi egin behar lirateke, edo, besterik ez bada, ahal bezain beste murriztu behar lirateke. Honako hau da arrazoibidea, gaingiroki: nazioak dira nazionalismoa sortzearen kausa, edo, gutxienez, bai beharrezko baldintza; era berean, nazionalismoa da Gizateriaren hondamendi askoren kausa zuzen edo zeharkakoa (gerrak, krisi ekonomikoak, elite ustelek masak manipulatu izana, etab.). Ondorioz, *modus tollens* praktiko bat aplikatuz gero, inferi dezakegu nazioak deuseztatu egin behar direla edo, bestela, hori guztiz litekeena ez bada, adierazpen folkloriko huts izan arte murriztu, kaltegarri izan ez daitezen. Kontranazionalismoa, beraz, «nazio» deritzagun entitateen ebaluazio erabat negatiboan oinarritzen den ekin-tza politikorako programa bat da.

Nire ageriko asmoa nazionalismoaren alde egitea denez, deskribatu berri ditugun bi jarrrera antinazionalisten kritikari ekingo diot jarraian. Hala eta guztiz ere, argi dago horren aurretik nazio kontzeptua aztertu behar dela ahal bezain zorrotz, hura zentrala baita eztabaida honetan, jakina.